

**Espedientearen kodea:** 2022ZZ020007

**Espedientearen gaia:** 2022an Oiartzungo Kirol- klubek eta -elkarteen funtzionamendu gastuetarako eta beraien jarduna sustatzeko dirulaguntzak. Munigex:2022DI03010002 Artxiboa: 041/01

**Titularra:** OIARTZUNGO UDALA

## EBAZPENAREN ZIURTAGIRIA

**Maria Victoria Joaristi Olariaga, Oiartzungo Udalaren idazkari naizenak:**

**ZIURTATZEN DUT:** Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2022/05/25n, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuela:

**“2022AN OIARTZUNGO KIROL KLUBEN ETA ELKARTEEN FUNTZIONAMENDU GASTUETARAKO ETA BERAIEK JARDUNA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN BANAKETA ETA ORDAINKETA ONARTZEA.**

Gazteria eta Kirol Zerbitzuko teknikariaren txostenaren arabera, “2022an Oiartzungo kirol-klubek edo -elkarateek funtzionamendu gastuetarako eta beraien jarduna sustatzeko dirulaguntzak banatzeko oinarriak” onartu zituen Udalbatzak 2022ko urtarrilaren 26an. Oinarriok 2022/02/22ko 35 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren eta eskaerak aurkezteko irekitako 30 egun naturaleko epea ireki zen 2022/04/05a arte. Epe horretan zazpi eskaera aurkeztu dira.

Eskaerak eta dokumentazioa aztertuta, puntuatu egin ditu teknikariak eta puntuazio horren baitan egin du dirulaguntzak emateko proposamena.

Proposamena 2022ko maiatzaren 12an egindako Gazteria, Kirola eta Hezkuntza Ez Arautua Batzordean aztertu da eta aldeko diktamena jaso du.

Guzti hau kontutan hartuta, Udal Osoko Batzarrak honako ebazpena hartu du:

**LEHENA:** Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira 47.064,67.- euroko gastu onarpena egitea, Oiartzungo Udalaren 2022 urteko aurrekontuko 1 1102.481.341.00.02 2022 (A-67/2022) zenbakidun diru-atalaren kontura.

**BIGARRENA:** Gazteria eta Kirol Zerbitzuko teknikariak egindako proposamenaren baitan dirulaguntzaren honako banaketa onartzea. Ordainketa-moduari dagokionez, %60 banaketa onarpenarekin batera egitea eta irailaren 30a baino lehen gastuak justifikatu ondoren %40a ordaintzea:

Elkartea	Puntuak	€ (%100)	1.ordaink. (%60)	2. ordaink (%40)
Oiartzun Kirol Elkartea	1.153,5	28.268,21	16.960,93	11.307,28
Txost Oiartzungo Pilota Kirol Kluba	295,5	7.241,66	4.345,00	2.896,66
Hautzaro Kirol Elkartea	229	5.611,98	3.367,19	2.244,79
Oiartzungo Saskilaginak S.K.T.	102,5	2.511,91	1.507,15	1.004,76
Hiruki Gimnasia Kluba	96,5	2.364,87	1.418,92	945,95
Tximeleta Kirol Elkartea	34,5	845,47	507,28	338,19
Delta Klub Haize	9	220,56	132,34	88,22
<b>GUZTIRA</b>		<b>47.064,67</b>	<b>28.238,80</b>	<b>18.825,87”</b>

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikuluaaren arabera, Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Done Eztebe plaza 1 – 20180 Oiartzun 943 490 142 – [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus)

EUSKAL HERRIA



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU25dea9a6-d3f2-45c3-8c27-74fe9a504470**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikokoan: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2022ZZ020007-Ebazpena pleno/Ebazpena pleno (OIARTZUNGO UDALA)